

**“Elorriarrei gure ohiturak,  
kultura eta jatekoa  
erakusteko jaia da  
Haware”**

**Awa Sagna**

Haware jaiko antolatzailea • 4



**Ume sahararren etorrera: familien  
eta laguntzaileen ekarpenik barik  
ezinezkoa litzatekeen ekimena**

**Durangaldea** | 34 umeri harrera egin diete Durangoko  
udaletxean eta Axpeko udako kanpamentuan. • 6



## ***Iraultza teknologikoaren gailurrean***

Amagoia Paskual durangarra Addilan enpresako zuzendaria da. Bertan sortu duten makina bakarra da munduan; 3Dko inprimagailu bat bailitzan, harien bidez metalezko piezak sortzen ditu. • 2-3

**Otxandion eta  
Zaldibarren eraso  
bana salatu zuten  
aurreko zapatuan**

**Durangaldea** Joan zen zapatuan eraso bana salatu zuten Otxandion eta Zaldibarren. Herri bietan elkarretaratze jendetsuak egin zituzten. • 6. orrialdea



**Ondo pasa  
Zornotzako jaietan!**

SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS  
**IMQ Igurco**  
ZERBITZU SOCIO-SANITARIOAK



## “Proiektu oso motibagarria da, teknologia aditiboa guztiz iraultzailea delako”

Metalezko piezak egiteko balio duen makinagatik, aitortza jaso dute Addilan enpresan

**DURANGO • MARKEL ONAINDIA**

**Iraultza industrialeko protagonistetako bat izan zen haria, eta metalaren industriara beste iraultza bat dakar orain. Durangoko Addilan enpresan garatzen ari dira jauzi horren baitako egitasmoetako bat, eta emakume bat da bere arduraduna: Amagoia Paskual durangarra. Metalezko piezak teknologia aditiboaren bidez sortzeko berrikuntza dihardute, WAAM (Wire Arc Additive Manufacturing) izeneko metodoa erabilita. Makina berezi bat diseinatu dute Addilan enpresakoek, balio erantsi handiko piezak egiten dituzten enpresentzat erabilgarri dena. 3Dko inprimagailu bat baillitza, hari metalikoagaz geruzak egin eta soldatu egiten ditu makinak aldi berean. Beraz, orain arte bezala piezak forjatu edo higitu ordez, sortu egiten dituzte teknologia berriari esker. Ibilbidea hasi baino ez dute egin, eta dagoeneko sektorearen errekonozimendua jasotzen ari dira.**

**Nondik dator Addilan enpresaren proiektua? Zeri erantzuten dio?**

Addilan makina-erremintako enpresa biren elkarlanetik sortzen da, bata Ona eta bestea Maherholding. Azken honetako negozio berrien arduraduna nintzen proiektu hau hasi zenean, 2013an. Fabrikazio industrialaren baitan, zerbait izaten hasi zen fabrikazio aditiboaren teknologia. Munduan, makina-erremintaren merkatuaren %5eko

kopurua lortu zuen. Gainera, digito biko hazkunderako proiektzio ekonomikoak zeuden. Nire helburua izan zen ea zer egin zitekeen ikustea, eta bilaketa horretan aukera bat suertatu zen, WAAM teknologiako makinak egitea. Enpresa bietako langile batzuekin talde bat sortu, eta 2014tik lanean ibili gara: teknologia garatzen, makina diseinatzen, bezeroekin elkarlanean... Emaitzak onak izan direnez, mar txan jarri da Addilan.

**Bide hori ez duze bakarrik egin.**

Anbizio handiko proiektua da.

“

**Tecnaliagaz akordio bat dugu, teknologia garatzen lagundu diezaguten”**

—

“

**Hegazkinen, itsasontzien eta trenen industriak honen alde apustu egiten dabilta”**

—

Tecnalia, EHU, Tekniker, Lortek eta arloko beste batzuekin kolaboratu dugu, eta 2017tik Tecnaliagaz akordio bat dugu, teknologia garatzen lagundu diezaguten. Aipagarria ere, Tknikagaz Lanbide Heziketarako daukagun akordioa.

**Ilusioa sortzen al dizu egitasmoak?**

Proiektu oso motibagarria da. Lehenik, guztiz iraultzailea delako. Fabrikazio aditiboa asko hazi da eta hazten dago. Azken datuen arabera, 2017an fabrikazio aditiboak 7.336 milioi dolarreko negozio kopurua lortu zuen, 2016an baino %21 gehiago. Oso indartsua da. Hegazkinen, itsasontzien eta trenen industriak honen alde apustu egiten dabilta. Iraultza bat da. Hemen inguruko enpresa biren ezagutzan oinarrituta gauza berri bat garatu ahal izatea eta aitzindari izatea itzela da.

**Irakurri dut zuen makina bakarra dela munduan, berezia.**

Fabrikazio aditibo honetan eredu asko daude, duzun beharrezanaren arabera. Guk aukeratu dugun teknologia WAAM deitzen da, hari eta soldadura bidezkoa. Munduan une honetan ez dago gurea bezalako makinarik komertzializatzen duen enpresarik. Metalezko haria da gure lehengaia. Artxiboa 3D formatuan daukazu, eta piezak behar duen lekuan ipintzen zoaz materiala, 3Dko inprimagailu bat baillitza: haria botatzen joaten gara eta pieza geruzaz geruza joaten da egiten. Geruza horiek soldaduraren bitar-



**Amagoia Paskual Eiguren**  
Addilan enpresako zuzendaria  
**Lekeitio | 1972**

tez fusionatzen ditugu. Makinaren gauza garrantzitsu bat da berezko CNC kontrol bat daukala, prozesu osoan kontrolatzen gabiltzala zer gertatzen den. Parametroren bat aldatzen bada, une errealean egoki-

“

**Munduan une honetan ez dago gurea bezalako makinarik komertzializatzen duen enpresarik”**


—

tzen dugu. Addilan makinaren kamera inerteari esker, soldaduran erabiltzen diren material guztiak erabili ahal dira.

**Eta zer abantaila ekar dezake?**

Metalezko piezak, askotan, bloketik etortzen dira. Bloke hori hartu eta mekanizatzen edo higitzen hasten zara orduan, materiala jaten, azkenengo pieza lortu arte. Bada, fabrikazio aditiboa alderantzizkoa da: zerotik hasten zara eta materiala gehitzen zoaz, pieza hori sortu arte. Bloketik hasterakoan, kasu askotan materialaren %70-80 galdu egiten da, eta, beraz, aditiboagaz aurreztu egiten dugu. Gainera, denbora ere murrizten da; fundiziotik datozen pieza batzuk hileetako denbora behar izaten dute, trenetako piezek adibidez. Denbora hori hileetatik egunetara





pasatzen da aditiboagaz.

**Durungaldean eragin handia du metalaren industriak. Teknologia berriak ez al du horretan eragingo?**

Hasieran bazegoen kezka bat mekanizatuaren eta higaduraren arlotik. Baina teknologia guztiz osagarriak direla ikusi da, ez dugu mehatxu moduan ikusten. Gauza batzuk aldatuko dira, mekanizatu egiten diren pieza batzuk aditibotik egin ahalko dira. Baina guk egiten dugun pieza ez da behin betikoa, gero beti mekanizatu behar da, soberakin bat uzten dugulako. Beraz, ez du mekanizatu amaituko. Lote handietan egiten diren piezak ere fundizioan egingo dira, adibidez.

**Beste alde batetik, onura ere ekar dezake, ezta? Teknologia berriari bidea zabaltzeko sare bat beharko da.**

“**Bloketik hastean, batzuetan materialaren %70-80 galdu egiten da; aditiboagaz aurreztu egiten dugu**”

“**Euskal enprekin balio-kate bat sortzen ari gara, teknologia aditiboko piezak hemen garatzeko**”

Euskal enprekin balio-kate bat sortzen gabiltza, teknologia aditiboko piezak hemen garatu ahal izateko. Gure inguruan, mekanizatu dakiten enpresa asko daude, erremintak egiten dakitenak, tratamendu termikoak egiten dakitenak... Hori guztia beharrezkoa da. **Zeintzuk izango dira zuen bezeroak?** Aeronautikara enfokaturuta egon gara, abantaila asko ematen dituelako. Hegazkin fabrikatzaileak ere apustu egiten dabilta. Sektore oso kontserbadorea da, normala den lez, inork ez du gura hegazkinak huts egiterik. Iaz titaniozko hiru pieza egiaztatu ziren, eta teknologia guztiz balioztatzea erronketa bat da. Baina ez da sektore bakarra. Itsasoko sektorean, trenetan... Hau da, pieza metaliko handiak fabrikatzen dituzten

sektoreetan. Gure makinak, adibidez, 1.200x800x500 milimetroko piezak egin ahal ditu, eta gure asmoa da makina handiagoak egitea. Sektore horiei begira lehiakor izatea ere bada gure erronka bat. Hainbat proba egin ditugu aurretik, propietate mekaniko onak

“**Berrikuntza Sari Nazionala eman ziguten fabrikazio aurreratuen teknologietan**”

ditugula egiaztatzen. Izan ere, enpresa horiek oso exijenteak dira. **BECen egindako makina-erremintako bienalean saritu zintuzteten.**

Bienalaren baitan teknologia aditiboko azoka bat antolatzen da. Gure makina aurkeztu genuen eta Berrikuntza Sari Nazionala eman ziguten fabrikazio aurreratuen teknologietan. Oso notizia ona da, sektore industrialaren partetik datorren errekonozimendu bat. Orain urtebete ere enpresa berriei eskaintzen zaien Toribio Etxebarria izeneko saria eman ziguten Gipuzkoako Aldundiak, SPRIk eta Eibarko Udalak. Bestalde, azaroan Alemanian egon ginen Addimat elkarteko standagaz; aditiboko azokarik garrantzitsuen egiten da han, mundu mailako eskaparatea, eta aurten ere joango gara.



## Doctor Deseo taldeak jaietako musika eskaintza zabalduko du bihar

**ZORNOTZA** • JOSEBA DERTEANO

Zornotzarrak Karmen jaietan murgilduko dira bihartik aurrera. Urtero legez, musika eskaintza zabala egongo da. Bihar Doctor Deseo taldeak zuzene-

**Domekan Wicked Wizzard eta Reincidentes taldeen txanda izango da, 22:00etan**

koa eskainiko du, 22:30ean. Gauerdian Zirkinik Bez taldeak erromeria eskainiko du Ixerbekoan. Domekan, txupinazo egunean, Wicked Wizzard eta Reincidentes taldeen txanda izango da, 22:00etan.

## Udalak ur parkea antolatu du umeentzat, uztailaren 14 eta 28rako

**BERRIZ** • M.Z.

Berrizko Udalak uretako parkea antolatu du umeentzat, uztailaren 14 eta 28rako. Ur parkea Berrizburuko igerilekuan jarriko dute eta 10:30etik 13:30etara egongo da martxan.

**Ur parkea igerilekuan jarriko dute eta 4 urtetik 11 urtera bitarteko gazteak ibili ahal dira**

Joan gura duten umeek aurrez eman beharko dute izena, Berrizburuko kiroldegian.

Ur parkean 4 urtetik 11 urtera bitarteko umeak ibili ahal izango direla jakitera eman dute.

# “Elorriarrek gure kulturaren aletxo bat ezagutzeko aukera izatea gauza polita da guretzat”

Bihar Senegalgo Haware jaia ospatuko dute Elorrioko plazako frontoian; Senegalgo jatekoaz gozatzeko aukera egongo da



Awa Sagna hamaika urtez bizi da Elorrioren.

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

**Zapatuan ez da jai girorik faltako Elorrioren, herriko senegaldarrek euren herrialdeko laugarren Haware jaia antolatu dute eta. Hamaika urtez Elorrioren bizi den Awa Sagna gogotsu dago aurtengo ediziorako.**

**Zer da Senegalgo Haware jaia?**

Elorriarrei eta bertara datozen

pertsona guztiei gure ohiturak, kultura eta jatekoak erakusteko jaia da Haware. Hala ere, jai honen helburu nagusia dirua biltzea da, gero liburuak, jatekoa... Afrikara bidali ahal izateko.

**Gura duenak Afrikako platerak dastatzeko aukera izango du.**

Bai. Hiru plater egingo ditugu. Lehenengoak Thieb Bu Jen du ize-

na; arrozak eta arrainak osatzen dute platera. Bigarrena saltsa berezi batez egindako arraina izango da, eta, azkenik, oilaskoa eskainiko dugu, Senegalen egiten dugun eran. 13:00etan hasiko gara bazkaria ematen. Nagusiek bost euro ordaindu beharko dituzte, eta umeek, 2,5 euro. Edariagatik euro bat ordaindu beharko da.

**Aurten laugarren edizioa ospatuko duzue. Elorriarrek ondo erantzuten duten seinale da hori.**

Elorriarrek oso ondo erantzun dute beti, eta aurten ere denak daude gonbidatuta. Elorriarrek gure kulturaren aletxo bat ezagutzeko aukera izatea gauza polita da guretzat. Gainera, lehen esan bezala, gure janaria dastatzeko aukera izateaz gain gure kultura ezagutzeko aukera ere izango dute. Arratsaldean, esaterako, Afrikako dantzak egingo ditugu.

**Senegaldarren elkarte indartsua omen duzue Elorrioren.**

Elkartearen helburua Afrikara beharrezkoak diren elikagaiak, produktuak, materialak... bidaltzea da. Horretarako, badakigu urte guztian egin behar dugula lan, eta horretan aritzen gara, buru-belarri. Elorrioko elkartean hainbat herritako lagunak gabiltza gaur egun, ehundik gora. Hau guztia udalari esker ere bada.

**Dagoeneko hamaika urte daramatzazu Elorrioren. Nolako harrera izan zenuen?**

Harrera oso ona izan nuen eta oso gustura nago hemen. Elorriarrek bihotz onekoak dira eta oso pozik nago herrian. Hizkuntzaren aldetik, euskara zaila egiten zait. Hala ere, saiatzen naiz zerbait ikasten.

## Eskolan jantokia jarri gero, 23.787 euro geldituko lirateke Durangaldean

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzeko azken astean Atxondoko eskolako jantokian astebe-

teko plantoa egin zioten catering zerbitzuari. Asteon plantoaren balorazioa egin dute eta Atxondoko eskolako Ikasleen Guraso Elkarte-ko kideek jakitera eman dutenez, Atxondon sukaldia egingo balitz

eta bertako eta sasoiko produktuak erosiko balira, urtean 23.787 euro geldituko lirateke eskualdean.

Bestalde, Bertonen Bertokoaren ekimenaren barruan dauden 12 ikastetxetan sukaldia jarriko balitz, eskualdeko ekoizle eta dendariak 1.292.416 euro irabaziko lituzketela jakinarazi dute.



Eguaztenean egin zuten prentsaurrekoa, Anbotope Agrotxingoan.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko uztailaren 13a  
16. urtea - 729. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



# Herri Babeserako Boluntarioen Elkarteak 25 urte daramatza Otxandio eta inguruak zaintzen

Suteetan suhiltzaileei aurrelana egiten diete, su txikiak itzali dituzte eta mendi erreskateren batean ere parte hartu dute



Ezkerretik eskumara: Andoni Basterra, Arkaitz Zamakona, Beñat Gorospe, Andoni Lazaro eta Endika Garate.

## OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Sute bat badago segituan bertaraten dira, neguko elurteetan bideak garbitzen laguntzen dute, eta mendiko erreskateren batean ere parte hartu dute. Boluntarioak dira, Herri Babeserako Elkarteak osatzen dute eta 25 urte daramatzate Otxandio eta inguruak zaintzen.

90eko hamarkada hasieran sortu zuten taldea eta udaletxean jasota ageri den lehenengo dokumentua 1993koa da. Andoni Basterra hasierarik dago elkarteak. "Behin, neguko egun batean sua piztu zen

### **Azken urteetan, hainbat bider mobilizatu dira tximinietan piztutako suteengatik**

tximinia batean. Jendea teilatura igotzen zen, baldeekin ura botatzeko. Arriskutsua zen. Orduan ikusi genuen zerbaiten beharra zegoela", gogoratu du.

Gaur egun 12 boluntario dabil-tza. Larrialdi zerbitzuko den deia

jasotzean jartzen dira martxan. Suteen kasuan, suhiltzaileak heldu orduko aurrelana egitea da euren ardura nagusia: mangerak zabal-tzea, harguneetan kokatzea eta suhiltzaileentzat baliagarria den informazioa batzea.

Aldundiak utzitako zisterna-kamioiagaz, suhiltzaile jantziekin eta urtean zehar jasotako formakuntza praktikan jarrita, su txikiak itzaltzea ere egokitu zaie sarritan. Batez ere, tximinietatik sortutako suteengatik mobilizatu dira azken urte bietan, sei-zazpi bider. Anboto

mendi inguruan larri zebiltzan gazte biren erreskatean lagundu zuten behin. Zaurituak aurkitu, estabilizatu eta Ertzaintzari kokapen zehatzaren berri eman zioten. Desagertutako pertsona biren bilaketan ere lagundu dute azken urte bietan. Gauza kuriosoak ere egin dituzte: iazko santamañetako Umeen Egunean, kamioiko mangerak atera eta urez freskatu zituzten gaztetxoak, beroari aurre egiteko. Egindako lana ez da oharkabean pasatu. Orain 4 urte jaietako txupinazoa botatzeko ardura izan zuten.

## Bihar hasiko dituzte Otxandioko santamaña jaiak, Gazte Eguna

### OTXANDIO • J.D.

Bihar hasi eta uztailearen 22ra arte santamaña jaiak ospatuko dituzte Otxandion. Egitarau oparoko lehenengo eguna herriko gazteei zuzendutakoa izango da. Eguerdiko trikipoteoak bertso bazkariari emango dio erreleboa. Bazkalostean, 18:00etan, gazte ginkana egingo dute, askotariko jokoeekin. Ostean, elektrotxaranga berotuko du giroa herrian, eta eguna kontzertuekin amaituko dute. 23:00etan, Ezetaerre rap talde galiziarren eta ON! rock talde ondarroarraren kontzertuak hasiko dira. Gauari DJ Maskaradunaren musikak emango dio

### **Ezetaerre eta ON! taldeen kontzertuak eta DJ Maskaradunaren musika izango dira gauean**

jarraipena. Domekan kantuzalez beteko da Otxandio Kantu Eguna ospatzeko. 12:30ean hasita, kalez kale ibiliko dira kantari, 15:00ak arte. Ordu horretan, eztarriari merezitako atsedena emanaz, bazkaritara batuko dira denak.

Aste barruan egongo diren ekintzen artean, txupinazoa eta horren osteko Bidez Batez taldearen erromeria nabarmendu daitezke martitzenean, eta pilota partiduak eguaztenean. Udaletxe pareko plazako frontoian emakumeen eta gizonen partidu bana egongo dira arratsaldean, 17:30ean.

## Plazako jolasgune handitua zabalik dago, eta lehen baino txin-txaun eta jolas gehiago ditu

Udalak 14.000 euroko inbertsioa egin du jolasgunea jolas berrieekin atontzeko

### IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako gaztetxoek prest dute jolasgune eraberritua. Aurrekoa baino handiagoa da eta txin-txaun gehiago ditu. Aurrekontuetako 14.000 euro erabili ditu udalak jolasgunea handitzeko.

Martitzenean egin zituzten azken ukituak eta eguaztenean zabaldu zuten jolasgunea. Tokiko Agenda 21eko batzar batean gurasoek eurek aukeratutako jolasak gehitu dituzte. Txirrista da nobedadeetako bat. Umeen artean

### **Etxe baten itxurako eskalada-horma eta txirrista dira jolasguneko jolas berri batzuk**

arrakastarik handienetakoa izaten duen jolasa da. Etxe baten itxurako eskalada-horma bat ere gehitu dute. Umeak etxeko teilatuan gora eta behera ibili daitezke, eskalatzailak bailiran. Tokian bertan bueltak ematen dituen txin-txauna da bes-

te berri bat. Jolasgune osoan umeak erorikoetatik babesteko zoru berezia jarri dute. "Pozik gaude jolasgunea zelan geratu den, eta umeak olgetan pozik ibiltzea espero dugu", adierazi du Lorea Muñoz alkateak.

### **Leihoak aldatu dituzte**

Jolasguneaz gainera, beste obra batzuk ere egin dituzte plaza inguruan. Nagusien lokaleko zein Argintxu elkarteko eta osasun zentroko leihoak aldatu ditu udalak, 30.000 euroko inbertsioa eginda.



Eguaztenetik irekita dago plazako jolasgune eraberritua.





Hamadako Izarrak elkarteko kideak eta laguntzaileak ume sahararrekin, Axpen.



Luisa Oleaga eta Joanne Garate dira Axpeko begiraleetako batzuk.

## Saharako 34 umek Durangaldeko familia eta kanpamentuetan hartu dute babes



Durangoko Udalean harrera ofiziala egin zieten joan zen barikuan.

Familiek, Hamadako Izarrak eta Rio de Oro elkarteek egingo duten lan solidarioari esker etorri dira ume sahararrak

### DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetatik irten eta uda Durangaldean pasatzera etorri dira 34 ume. Oporrak Bakean programaren bidez. Familietan eta kanpamentuetan hartu dute babes, desertuko beroa saihestu, aisialdi ekintzekin gozatu eta osasun azterketak egiteko asmoz. Aniztasun funtzionala duten 11 ume

### Aniztasun funtzionala duten 11 ume Rio de Ororen kanpamentuan egongo dira, Izurtzan

Izurtzako Rio de Oro elkartearen kanpamentuan egongo dira, 15 Atxondon Hamadako Izarrakegaz, eta 8 zenbait herritarren etxeetan.

Familien eta begiraleen lan boluntarioak ez litzateke posible izango ekimena aurrera ateratzea.

Joanne Garate eta Luisa Oleaga dira sahararrak zaintzeko prest agertu direnetako batzuk, Hamadako Izarrak taldeak Axpeko mai-suen etxean muntatu duen udalekuan. Gazte biak udalekuko lehen txandan egon ziren, ekaineko azken asteburuan. Ume belaunaldi

honen lehen aldia da, eta, horregatik, hasieran hizkuntza eta ohitura aldaketak igartzen direla diote, baina "abiadura bizian" ikasten dutela.

### Bizipena eta ekarpena

Sahararen aldeko kausa aspalditik bizi dute Garatek eta Oleagak. Aurretik, euren etxeetan ere hartu izan dituzte umeak. "Etxean hartu genituen umeak jada ezin dira

etorri. Beraz, ume hauekin egotea berriro esperientzia hori bizitzea da, baina beste era batera", azaldu du Garatek. Pertsonalki ekarpen bat egiten dutela sentitzen dute, Oleagak dioenez. "Saharar herri-gaz dudan loturari eusteko modu bat da niretzat, eta eurek ematen dizuten zorientasunaz aparte, herri horren alde zerbait egiten nabilela sentitzen dut", adierazi du.



Goian, Otxandioko elkarretaratzea, eta behean, Zaldibarkoa.

## Eraso bana salatu dute Otxandion eta Zaldibarren

Elkarretaratze jendetsuak egin dituzte eraso biak gaitzetsi eta biktimei elkartasuna helarazteko asmoagaz

### DURANGALDEA • J.D./M.Z.

Zapatu gauean eraso bi gertatu ziren Durangaldean. Otxandion gizon batek bere bikotekideri egin zion eraso kalean, eta udalak jakitera eman zuenez, herritar bi emakumeari laguntzen saiatu ziren. Herritarrei aurre egin eta gizona bietako baten kontra oldartu zela adierazi zuten.

Bagaizan talde feministak antolatuta, elkarretaratze jendetsua egin zuten, martitzenean, eraso

matxista salatzeke, eta eraso jasandako emakumeari "elkartasuna" helarazi zioten.

Bestalde, zapatuan, Zaldibarko Gaztetxean mutil batek hainbat neska kuadrillari eraso egin ziela salatu zuen Zaldibarko mugimendu feministak. Brigadari esker, erasoari aurre egin eta erasotzailea Gaztetxetik kanporatzea lortu zuten. Domekan elkarretaratzea egin zuten udaletxe aurreko plazan eraso matxista salatzeke.





## IURRETA

### *Tellitu-n udaberrian hasiko gara eraikitzen*

*3 logelatako  
6 etxebizitza*

*2 logelatako  
11 etxebizitza*

*Garajea eta  
trastelekua barne*



## DURANGO LANDAKO GUNEA

*Durangoko herrigunean,  
bista ederrekin*

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



## Protokoloa sinatu dute Ura agentziak eta udalak, erreken garbiketa hobetzeko

ABADIÑO • A.M.

URA uraren euskal agentziak eta Abaiñoko Udalak protokoloa sinatu dute herriko erreka ertzak garbitzeko. URA ubideen gaitasun hidraulikoen man-

**Hitzarmenak sentsibilizazio kanpainak egiteko aukera jasotzen du**

tenuaz arduratuko da. Udala, ostera, hondakinak garbitzeaz arduratuko da. Protokoloari jarraipena egingo dion batzordea sortuko da. EH Bildu hainbat bider kezatu izan da udalaren utzikeriagatik.

## Hogeita lau orduko greba egin dute Inyectados Gabi-Galter galdategian

ZALDIBAR • A.M.I

Hogeita lau orduko greba egin dute Zaldibarko Inyectados Gabi-Galterren, lan baldintza hobek eskatzeko. ELA sindikatuaren arabera, langileen arte-

**Langileen arteko soldata arrakala "eskandaluzkoa" dela salatu du ELA sindikatuak ohar batean**

ko soldata arrakala "eskandaluzkoa" da. Era berean, behin-behinek langileen kontratazioa legez kanpoko dela salatu dute. Lanuztea egueneko 06:00etatik barikuko 06:00ak artekoa izan zen. Enpresari hitzarmena negoziatzeko deia egin diote.

# ANBOTOren 4. udako argazki lehian asteburu-pasa bi irabazteko aukera

Irailaren 15era arte egongo da martxan lehiaketa, eta sari ugari egongo dira jokoan



lazko lehiaketan saritutako lanetako bat.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Argazkilari senari bide eman eta ahalegina saritzeko asmoz, udako argazki lehiaketa antolatu du ANBOTOK. Arlo bitan aurkeztu ahalgo dira argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko onena. Epaimahaiaren saria irabazten duen bakoitzak Eroski Bidaiakek emandako bidaia bategaz gozatuko du. Publikoaren sariaren kasuan, eskualdeko

**Argazki lehiaketako baldintza guztiak 'www.anboto.org' webgunean daude ikusgai**

onenak Garaiko landetxean gau bateko egonaldia eta Hiper Eroski Abadiñok emandako barbakoa bat jasoko ditu. Eskualdez kanpoko onenak, eLAlA Information Technologyk emandako tableta eta Ibarra sagardotegirako menu bi.

Irailaren 15era arte aurkeztu ahalgo dira lanak, eta publikoaren saria irailaren 17tik 30era bitartean egingo den web bidezko bozketan erabakiko da. Gehienez lau argazki aurkeztuko ditu egile bakoitzak, aurretik beste lehiaketetan saritu bakoak. Baldintza guztiak [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean daude ikusgai.

## Espresa berri bat sortzeko, 6.000 euroko diru-laguntza emango du lurretako udalak

Hamarkada bete du lurretako herrigunean enpresa berrien sorrera sustatzeko enpresa-proiektuen lehiaketak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak zabaldu du dagoeneko enpresa-proiektu lehiaketa. Norberaren enpresa edo denda sortuz lanean hastea erabaki dutenei bidea errazteko sortu zen lehiaketa hau. Aurten hamarkada bete du lehiaketak, eta irabazleak 6.000 euroko saria lortuko du. Urriaren 31ra arte dago aukera izena emateko.

Proiektuek udalerriko errealtatea izan behar dute kontuan eta herriguneko kaleetara mugatuko dira. Obra eta jardura lizentziak lortzen dituenen, irabazleak laguntzaren %20 jasoko du, eta establezimendua zabaltzeko lizentzia lortzen duenean, %50. Gainerako %30a urtebeteko epean emango diote, udalak azaldu duenez.



Bixente Kapanaga kaleko irudi bat.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577  
[jrueda@segurosbilbao.com](mailto:jrueda@segurosbilbao.com)

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ





**Goiburuko  
aholkularitza  
enpresa, enpresari,  
profesional eta  
pertsoneentzat**



**FISKALA**



**KONTABILITATEKOA**



**MERKATARITZAKOA  
ETA FINANTZARIOA**



**LABORALA**

***Bezeroa, enpresako bere kudeaketa  
eta bere gogobetetzea dira gure helburu***

**[www.gualbiasesores.com](http://www.gualbiasesores.com)**

**Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO**

**Tel.: 946 818 636 / 946 811 590**

**Faxa.: 946 203 637**

**info@gualbiasesores.com**



## Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztuko dute gaur Mallabiko plazan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Hizkuntza ohiturak astintzeko eta ohiko harremanetan euskarara gehiago erabiltzeko helburu duen Euskaraldia ekimena herriz herri gorpuzten ari da. Mallabian Euskaraldiko hamaikakoa aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, plazan.

Hainbat alorretako (elkarte, merkataria, ostalari...) 11 lagunek Euskaraldia sustatzen eta herritarrek ekimenean parte hartzea gonbidatzen jardungo dute. Ekimena hurreratzen doan heinean, Euskaraldiaren aldeko sare zabala sortzea da helburua.

Euskaraldia azaroaren 23tik abenduaren 3ra izango da Mallabian zein Euskal Herriko herri askotan. 11 egunez hizkuntza ohiturak aldatzeko erronka hartuko dute.

## Iñaki Perurenaren Peru Harri museoa bisitatuko dute garaitarrek

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Datorren eguaztenean, hilak 18, Leitzara (Nafarroa) irteera egingo dute Garaitik, San Migel nagusien elkarteak antolatuta. Iñaki Perurena harri-jasotzaileak daukan Peru Harri museoa bisitatzea izango da eguneko ekintza esanguratsuenetakoa. Goizean joango dira museora, eta Leitzan bazkaldu eta gero, arratsaldean Aralarra txangoa egingo dute. Parte hartu gura dutenek bihar arteko epea dute izena emateko.

## Aurtengo jaietako egitarauaren berri emango dute gaurko batzarrean

MAÑARIA • J.D.

Abuztuaren erdian Mañariko Andra Mari jaiak hasiko dira, eta azken hilabeteetan Jai Batzordea lan eta lan aritu da egitaraua osatzen. Gaur da lan horren emaitza herritarrei aurkezteko eguna. 19:30ean, udaletxeko udalbatzar aretoan, aurtengo jaietako egitarauaren berri emango dute. Iazko jaietako argazkiekin egindako bideo bat ere erakutsiko dute eta amaieran luntxa egongo da bertaratzen direnentzako.

# Airea neurtuko du Jaurlaritzak Arriandin eta Tabiran, eta Amankomunazgoak eskualde osoan

Eusko Jaurlaritzak eginiko ikerketaren emaitzak kaleratu ditu udalak, eta indizeak errespetatzen direla azaldu du; oposizioa ez du asetu eta ikerketa gehiago eskatu du



Abenduan mobilizazio bi egin ziren airearen kalitateagatik sortutako kezka hori.

DURANGO • J.G. / M.O.

Airearen kalitatea dela-eta berriro ere zalaparta politikoa sortu da Durangon. Eusko Jaurlaritzak iragan udazkenean egindako ikerketaren emaitzak argitaratu ditu udalak, eta "onak" direla nabarmendu du. Balorazio horrek ez du oposizioa asetu, eta, gainera, txostena "berandu" kaleratu eta entregatu izana salatu dute. Eztabaidaren harira, datozen hiletan ekimen esanguratsu bi garatuko direla

atera da argitara: Eusko Jaurlaritzak Tabiran eta Arriandin airea neurtuko duela azaldu du udalak, eta Amankomunazgoak udazkenean honetan eskualde osoan ikerketa

**Azken hiru urteetan  
gai kutsakorren  
partikulek behera egin  
dutela dio udalak**

bat egingo duela iragarri du Durangoko EH Bilduk.

### Txostenaren eskean

Jaurlaritzaren txostena udaletxera heldu zela, eta eskatu arren gobernu taldeak ez zela eman salatu zuen EH Bilduk joan zen astean. Herriaren Eskubideak ere ohartarazi zuen azken sei osoko bilkuretan txostenagatik galdetu zutela, eta ez zirela eman. Horren aurrean, herritarrek informatzea eskatu

zioten oposizioa alderdi biek gobernuari.

Udalak egun bira bidali zuen prentsara Jaurlaritzaren txostenari buruzko oharra, eta ordurako alderdiek ere bazuten esku artean. Abenduan emandako informazioen haritik doaz Jaurlaritzaren emaitzak. Batetik, joan zen udako hatsa Smurfit enpresaren akats bategatik zela, eta hori konponduta dagoela apirilaz geroztik. Bestetik, neurtetean 172 konposatu topatu arren, azken hiru urteetan gai ku-

**Abenduan emandako  
informazioen haritik  
doaz Jaurlaritzaren  
emaitzak**

tsakorren partikulek behera egin dutela, eta Jaurlaritzaren zein Osasunerako Mundu Erakundearen indizeak bete direla. Hala ere, bere aldetik, Ekologistak Martxanek emandako datuek diote OMERen indizeak gaintzen direla.

Azterketa independente bat egi-tea eskatu zuen EH Bilduk. "Gauzak ondo dauden autokonplazentzia itsuan erortzea guztion kalterako da", esan dute. Herriaren Eskubideak, ostera, hainbat kutsatzaile ez direla neurtzen eta datuak falta direla salatu zuen oharrean.

## Eguzkitakoak jarrita egin dute protesta Mikeldi auzoan, berdegunea babestearen alde

Parkinga ez eraikitzea eskatu dute, berdegunea "ongizaterako" beharrezkoa delako



Irudi bitxia utzi zuen martitzeneko protestak.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Mobilizazio irudimentsua egin zuten martitzenean Mikeldi auzoan. Eguzkitakoak, toallak, aulkiak eta etzaulkiak eraman zituzten, etxe berrien ondoko berdegunea "topaketarako lekua" dela irudikatzen. "Auzoaren ongizaterako beharrezkoa den lekua aldarrikatu gura dugu", diote auzokideek. Udalak disuasiorako parking bat egiteko asmoa du bertan, herrian ezarri gura dituen beste bostegaz batera.

Ekainaren 26an auzokideek mozio bat aurkeztu zuten udal-txean, Mikeldiko idolo aurrean dagoen berdegunean aparkalekurik ez eraikitzeke eskatzeko. Udalak, baina, baztertu egin zuen mozia, gobernuak ez baitzuen babestu. Auzokideek mobilizazioak egiten jarraituko dutela aurreratu dute.

## Udalek energia berriztagarriekin duten konpromisoa eskertu du EVEk

DURANGO • M.O.

Energiaren Euskal Erakundeak (EVE) energiaren arloan egindako lana aitortu zien joan zen barikuan Durangaldeko, Debarrenako, Arratiako eta Nerbioi ibarretako udalei.

**Izan ere, energia  
aurrezteko ikuspegia  
txertatuta dago  
igerilekuan**

Durangoko Landako II kiroldegian egin zuten ekitaldia. Izan ere, energia aurrezteko ikuspegia txertatuta dago igerilekuan; esaterako, erabiltzen duten uraren eta beroaren zati handi bat berreskuratzen dute.



## Hareek denporak!

### Durangaldeko jokalaria munduko txapelketan

Olatz Fernandez de Arroiabe eta Eider eta Ioana Barrena errugbi jokalariei munduko txapelketako partido bat jokatu ostean 2002. urtean aterako argazkia da hau. Bartzelonan jokaturako txapelketa hartan Ines Etxegibel jokalaria durangarrak ere jokatu zuen eurekin. Lau partido jokatu zituzten eta lehenengo barkarrik irabazi zuten, Japoniaren aurka. Bigarrena, Ingalaterraren

kontra ondo jokatu arren, ezin izan zuten irabazi. Hurrengo bietan, Eskoziaren eta Estatu Batuen aurka, nekea igarri zuten.

Durangaldean, errugbiaren katea ez da eten. Uribarri Barrotieta durangarra errugbi zarpiko munduko txapelketan parte hartzeko hautatu dute. Espainiako selekzioagaz San Frantziskon jokatu du lehen partidua, uztailearen 20an. J.G.



Elorrio errugbi taldea.

## Sei hankako mahaia

Dani  
Maeztu Perez  
EH Bildu



### Diskriminatua

Maria Mungian bizi da, Galdakaoko Ospitalean egiten du lan, eta egunero 25 kilometro egiten ditu eskualdeko beste langileekin batera bertara heldu ahal izateko. Bide guztia errei biko errepidetik egiten du eta ez du bidesaririk ordaindu behar.

Jon, Mariaren lankidea da aipaturako ospitalean, baina bera Durangon bizi da. Jonek 24 kilometro egiten ditu egunero. Bera ere kotxean joaten da ospitalea, bertan lan egiten duten beste 2 pertsonekin. Baina, kasu honetan, bi aukera dituzte: edo autopistatik joan eta eguneko joan-etorriengatik 4,50 euro ordain-

### Durangon bizitza Mungian bizitza baino garestiagoa izan daiteke, lanera Bilbo aldera joan behar baduzu

du, edo goizetan trafikoz gainezka egoten den N-634 errepidea erabili.

Errealia izan daitekeen adibide honen konklusioak hauek dira: Durangon bizitza Mungian bizitza baino garestiagoa izan daiteke, lanera Bilbo aldera joan behar baduzu. Bueno, garestiagoa edo arriskutsuagoa. Hori bai, Mungian bizi edo Durangon bizi zerga berdina ordaindu behar zaizkio Bizkaiko Foru Aldundiari. Beraz, zergatik diskriminatu zuten gaituzte?

### Durangaldea asteen

#### Txakurrentzat hesitutako gunea ipini dute Durangoko Errotarixuenan

**Durango I** Durangoko herrigunean txakurrak ateratzeko esparru "eroso, seguru eta erabilgarri bat" izateko helburuagaz, Durangoko Udalak Errotarixuenako berdegune bat hesiekin zarratzea erabaki du.

Txakurrentzako aisialdi guneak 1.700 metro karratuko azalera du eta udalak 8.300 euro baino gehiago inbertitu ditu. Modu horretan, auzokideak molestatu barik euren animaliak solte utziko dituzte txakurjabeek.

#### Izarrak elkarteak antolatuko Burgoserako bidaian dagoeneko izena eman daiteke

**Durango I** Izarrak Astronomia Elkarteak Burgosera bidaia antolatu du irailaren 8rako. Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, asteburu osoko irteeran parte hartu gura dutenek aurrez izena eman beharko dute [izarraae@gmail.com](mailto:izarraae@gmail.com) helbidera idatziz. Izen-ematea abuztuaren 15a baino lehen egin beharko da.

#### Dendak Baik 2019ko egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan

**Durango I** Bigarren urtez, egutegia osatzeko argazki lehiaketa jarri du martxan Dendak Bai merkatarik elkarteak, Durangoko Udalaren laguntzagaz. Ohar bidez jakitera eman dutenez, *Urteko lau sasoiak Durangon* da gaia. Argazkiak irailaren 9a baino lehen bidali beharko dira [comercio@dendakbai.com](mailto:comercio@dendakbai.com) helbidera idatzita.



#### Durangoko Correoseko postariak mobilizazioak hasi zituzten uztailearen 6an

**Durango I** Langileek azaldu dute zuzendaritzak ez duela lanpostu biren hutsunea bete, eta, horren ondorioz, lan karga handitu zaiela. Uztailearen 6an ekin zieten protestei eta, emaitzarik lortu ezik, "protestak handituko" dituztela, ohartarazi dute langileek.

Kepa Gonzalez LABeko ordezkararen ustez, "onartezina" da lanpostu horiek ez betetzea. Une batean hiru ere izan dira egoera horretan zeuden postuak. "Correosek beste herrietan ere bajak ez kubritzeko politika garatzen du, eta horrek eragin negatiboa du zerbitzuaren kalitatean". 15 banatzaile dira, eta 13 dabilza lanuzteak egiten.

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zerbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**Arriko Liburudenda**

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

CERAMICAS  
**MACOBER**

MATERIAL DE CONSTRUCCION  
**MACOBER**

Chimeneas  
Ceramicas MACOBER

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA  
ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

**ALDEKOA-OTALORA** iturgintza  
**ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA**

info@aldekoaotalora.com - 692 859 779  
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768  
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791





## The Cherry Boppers

JAZZERUENA  
DURANGO :: Uztailak 18

### Uda Giro 2018ko azken kontzertua

Afroamerikako erroetatik edaten du The Cherry Boppers taldeak; erreferentziatzko bilakatu dira Euskal Herriko funk panoraman.

### Uztailaren 13an

**ELORRIO musika**  
Camut Band taldearen kontzertua, 22:30ean, plazan.

### Uztailaren 14an

**OTXANDIO jaiak** Gazte Eguna. Bittor Kapanagari buruzko bisita gidatua, 11:00etan; **triki poteoa**, 13:00etan; **bertso bazkaria**, 15:00etan, plazan; **gazte ginkana**, 18:00etan, plazan; **elektrotxaranga**, 20:00etan; **Ezetaerre, On eta Dj Maskaraduna taldeen kontzertuak**, 23:00etan, gaztetxean.

**ZORNOTZA jaiak** Umeen arrantza lehiaketa, 09:00etan, Ibaizabal errekan; **duatloi txikia**, 15:00etan, Zelaieta parkean; **bizikleta eguna**, 18:00etan, Zubiondo parkean; **kuadrillen arteko ginkana**, 18:00etan, Zelaieta parkean; **Beldur Barik gunea**, 22:00etan, Ixerbekoan; **Doctor Deseoren kontzertua**, 22:30ean, Zubiondo plazan; **erromeria Zirkinik Bez taldeagaz**, 24:30ean, Ixerbekoan; **alkoholemia karpa**, 24:30ean, Ixerbekoan.

**ZORNOTZA deialdia** Amnistia Eguna. Herri kirolak, 13:00etan; ostean, trikitalariak, **bazkaria bertsolari eta trikitalariek**, 15:00etan; **Zeinke, Klown eta Unaiz taldeen kontzertua**, 20:00etan.

**ELORRIO musika**  
Sinfonity taldearen kontzertua, 22:30ean, plazan.

**DURANGO dantza**  
Dantza garaikide ikuskizuna. Ertza dantza taldearen 'Meeting Point', Doos kolektiboaren 'El fin de las cosas' eta Kukairen 'Topa', 19:00etan, Ezkurdin.

### Uztailaren 15ean

**OTXANDIO jaiak** Herri kantu eguna. Kantu zaleei harrera, 12:00etan; **kalez kale kantari**, 12:30etan; **azken kantua plazan**, 14:45ean, plazan; **kantu zaleen bazkaria**, 15:00etan.

**ELORRIO musika**  
Dantza garaikide ikuskizuna. Lasala dantza taldearen 'Famele' eta 'lu' zatiak; **Moveo konpainiaren 'CONSECUENCIAS' ikuskizuna**; **La Macanaren 'Ven' ikuskizuna**, 19:30ean, plazan.

**ZORNOTZA jaiak**  
Emakumeen II. esku pilota eta pala txapeletak, 11:30ean, Amorebieta IV frontoian; **'Musika kalean', Gaztediko gaiteroak**, 12:30ean, Andra Mari plazan; **'Musika Kalean' Kittu**, 12:30ean, Kalbarioan; **'Musika Kalean' Alex eta Lander trikitalariak**, 12:30ean, Zezilia Gallartza goitian; **txupin jaurtiketa**, 20:00etan, herriko plazan; **'Kaleko Musika' Always Drinking eta Marching Band taldeekin**, 20:30ean, Kalbarioan; **Wicked Wizzard eta Reincidentes taldeen kontzertua**, 22:00etan, Ixerbekoan; **Los Panchosen kontzertua**, 23:00etan, Zubiondo parkean.



## Errogatiba

OSPAKIZUNA  
AXPE :: Uztailak 14

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Larranon dagoen Santa Barbara ermitara joango dira asteburuan hainbat axpetar. Hain zuzen ere, 08:30ean irtengo dira harantz. Meza-aren ostean, Aitx Azpi elkar-teen bazkalduko dute.

### Uztailaren 16an

**ZORNOTZA jaiak**  
'Karmengo jaiak', eta ostean herri kirolak, goizean, Larrean; **Udazken taldearen kalejira**, 11:00etan, herrian zehar; **ume eta gaztetxoentzako ur parkea**, 11:00-14:00/16:00-19:00etan, Nafarroa aparkalekuan; **pilota partida profesionalak: Agirreamalloa-Oliden vs Carregal-Ibarloza / Urrutikoetxea-Larunbe vs Bengoetxea-Albisu**, 18:00etan, Amorebieta IV frontoian; **trafiko istripu simulakroa**, 19:00etan, Zelaieta parkean; **Etxahun Lekue, Oihana Iguaran, Arkaitz Estiballes eta Maddalen Arzallusegaz bertso saioa**, 21:30ean, herriko plazan; **Alain Concepcionen kontzertua**, 22:00etan, Zubiondo plazan.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



## Garaiko 5. BTT martxarako izen-ematea zabalik

**KIROLA** • Uztailearen 21ean egingo den kirol probarako izen-ematea zabalik dago. BTT martxaz gainera, mendi ibilbide berdina oinez egiteko aukera ere egongo da. Informazio gehiago gura duenak 622151357 zenbakira deitu dezake.



## Afrikan aniztasun sexualaren alde borrokan

**ERAKUSKETA** | Amnistia Internazionala erakundeak erakusketa bat ipiniko du Durangon datozen asteburu bietan, udalagaz elkarlanean. **Maitatzea ez da delitua**, gure borroka Afrikan izenburuko erakusketa da, kontinente hartan LGBTBI mugimenduaren eskubideen alde lanean dabilzanak protagonista dituen, 27 argazkitan.

Adibidez, Amnistia Internazionalako Aimar Rubiok kontatzen duenez, Ugandan homosexualen aurkako lege bat ezarri gura zutenean, presio sozialaren ondorioz auzitegi konstituzionalak atzera bota zueneko erakusten da argazki batean. Beste batean, Hegoafrikan eraildako Noxolo Nogwaza lesbiana da ardatza.

### 'Maitatzea ez da delitua'

**Uztailak 12**  
19:00etatik 21:00etara,  
Andra Mariko elizpean.

**Uztailak 13**  
19:00etatik 21:00etara  
udaletxeko atarian.

**Uztailak 14**  
11:30tik 13:30era,  
Andra Mariko elizpean.

**Uztailak 19**  
19:00etatik 21:00etara,  
Andra Mariko elizpean.

**Uztailak 20**  
19:00etatik 21:00etara  
udaletxeko atarian.

**Uztailak 21**  
11:30tik 13:30era,  
Andra Mariko elizpean.

## Uztailearen 17an

**OTXANDIO jaiak**  
**Ohiko Salve Regina abestuko da Oihandi abesbatzagaz**, 18:30ean, Santa Marina elizan;  
**Otxandioko presoek eskubideen aldeko elkarretaratzea**, 18:30ean, plazan; **txupin jaurtiketa musika bandakoen eskutik**, 19:00etan, plazan;  
**danborrada eta musika bandagaz kalejira**, 19:10ean, plazatik; **pintxo dastaketa**, 20:00etan, plazan, **Bide Batez taldeagaz erromeria**, 20:30ean.

**ZORNOTZA jaiak**  
**Ume eta gaztetxoentzako futbol 3x3, bubble soccer eta bungee basket**, 11:00-14:00/16:00-18:00, Zelaieta parkean; **'Babo Royal' antzezlan Ganso & Ciagaz**, 19:00etan, Andra Mari plazan;  
**kuadrillen arteko play back lehiaketa**, 20:30ean, Ixerbekoan; **Guda Dantza eta Itaca Band taldeen kontzertua**, 22:30ean, Zubiondo plazan; **'Mulier' dantza ikuskizuna, Compañía Maduixaren eskutik**, 22:30ean, herriko plazan.

## Uztailako agenda



14

### "SANTA MAÑAKO JAIK ARRIANDI"

Amezketako eskolan  
14:00 Herri Bazkaria. Ondoren trikitilariak giroa alaituko dute.

18

### "SANTA MAÑA EGUNA ARRIANDI"

Santa Mañako basilizan  
11:30 Meza. Jarraian tortillak, gozokiak, karramarroak eta edariak banatuko dira.  
Santa Mañako XLI. Tortilla Txapelketa.  
Santa Mañako XXXIV. Igel Txapelketa.  
Amezketako eskolan  
18:00 Santa Mañako LI. Briska Txapelketa.  
Amezketako inguruetan  
19:00 Arno Ganadtegiak antolatuta, ume eta helduentzako jolasak.

### Emoixu Odol Elkarte

Maspe 6  
16:30-21:00 Odol emotea.

25

### "SANTIXAU EGUNA OROZKETAN"

12:00 Meza. Jarraian luntxa.



Doctor Deseok bere azkeneko lana aurkeztuko du Zornotzako jaietan

## Uztailaren 18an

**DURANGO deialdia**  
**'Editore Mozorrotua' erakusketaren bisita gidatua**, 19:00etan, Arte eta Historia Museon.

**DURANGO deialdia**  
**The Cherry Boppers taldearen kontzertua**, 21:00etan, Plateruena kanpoan (eguraldi txarra eginez gero, barruan).

## Uztailaren 19an

**OTXANDIO jaiak**  
**Arimen meza**, 12:30ean, Santa Marina elizan,  
**umeen eguneko txupina**, 12:00etan, plazan, **umeentzako tailerrak**, 12:00etan, plazan, **jolas txokoa, adin guztietako haurrentzako puzgarriekin**, 16:30ean, plazan, **tute, mus eta briska txapelketa**, 17:00etan, plazan, **karaokea, eta apar festa**, 20:30ean, **'Gernikaren Egiak' dokumentalaren proiektzioa, eta ostean, solasaldia**, 22:00etan.

## Zine- ma

### :: Durango ZUGAZA

#### • El Rascacielos

barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 17:00/19:30/22:30  
domeka 15: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00  
eguzatena 18: 20:00

#### • El Mejor Verano De Mi Vida

barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 17:00/19:30/22:30  
domeka 15: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00  
eguzatena 18: 20:00


#### • Hotel Transilvania 3

barikua 13: 19:30/22:00  
zapatua 14: 17:00/19:30/22:30  
domeka 15: 17:00/19:15/21:30  
astelehena 16: 18:30/21:00  
martitzena 17: 20:00  
eguzatena 18: 20:00



# "Amaieran hondartza bezain bare egotea gura dugu; bizitzaren etapak hondar aletzat hartu ditut, iristea gustatuko litzaigukeen baretasun horren isla legez"

Gazteentzako nobelak kaleratu ostean, azkeneko bi hamarkadetan idatzitako olerkiak bildu eta 'Hondar Aleak' liburuan kaleratu ditu Rafa Ugaldek



**Rafa Ugalde Iragorri**  
Idazlea eta biologiaren lizentziaduna  
Zornotza | 1961

Rafa Ugalde zornotzarraren lehenbiziko poesia liburua da 'Hondar Aleak'

## POESIA • ARITZ MALDONADO

**Rafa Ugalde zornotzarrak bere lehenbiziko poesia liburua kaleratu du berriki, Erein argitaletxeagaz. Blas de Otero poesia lehiaketa irabazi duten olerkiek osatzen dute liburua.**

### Zer dira 'Hondar Aleak'?

Betidanik idatzi izan dut poesia, eta hainbat olerki gordeta eduki ditut. Batzuk orain dela hogeitun urte idatzitakoak dira, pentsa. Iaz, errepasso bat egiten ari nintzela, konturatu nintzen bizitzako fase bakoitzean bildutako sentipenak biltzen nituela. Orduan, ibilbide horri itxura ematea pentsatu nuen. Ikusten nuen badagoela aukera 50 urteagaz atzera begiratu eta horrelako ibilbidea aztertzeke. Idatzita nituen olerkien artean batzuk aukeratu eta lehiaketara aurkeztu nituen. Gaien aldetik, denetarik jorratzen dut: maitasuna, aitaren

figura, asegabetzea, heriotza... Ibilbidea nire bitzitzako atal ezberdinak lotuta ikusten da. Aurretiaz ez da egon asmorik, baina gerora ikusi nuen ideia horregaz zerbait gorpuztu zitekeela.

### Bizitzaren faseak aipatzen dituzu liburuan.

Eboluzio bat egiten da bizitzaren ibilbidean; adibidez, heriotzari buruzko ikuspuntuan. "Berrogeita hamar urtetik gora hiltzen hasten gozok", esan zidan lehengusu batek, eta esan daiteke hori dela liburuen abiapuntua. 50 urtetik gora dituzunean, asko dira gaztetan zure inguruan egon direnak, baina gero aldamenean ez dituzunak; organismoa ere huts egiten hasten da. Heriotza inguruan dagoen zerbaiten moduan hartzen hasten zara, etor daitekeen zerbaiten moduan ikusten duzu. Bizitzan pasatzen diren beste kontuekin ere antzera jokatzen da, lasaiago

“

**Bizimoduari buruzko gogoeta eragitea da nire helburua; azken finean, zertarako etorri gara hona?”**

■

hartzen da, normalean. Amaieran, hondartza bezain bare egotea gura dugu; beraz, bizitzaren etapa horiek hondar aletzat hartu ditut, iristea gustatuko litzaigukeen baretasun horren isla legez. Zure liburuetan, irakurleak gogoeta egitea bilatzen duzu.

Bizimoduaren inguruko gogoeta eragitea da nire helburua; azken finean, zertarako etorri gara hona? Jaiotzen garenetik hil arte daukagun denbora baino ez ga-

ra. Batzuek tarte hori luxuagaz betetzen dute; askotan betirako bagina legez jokatzen dugu, baina hori ez da horrela. Denok joango gara, eta, zoritxarrez, batzuk oso gazte. Mila gauza egiten gabiltza, batez ere gauza material gehiago lortzeko asmoz, baina, zertarako? Ez gara konturatzen daukagun gauza bakarra denbora dela, eta bitarte horretan zoriontsu izatea izan beharko litzateke helburua. Gogoeta egitea beti da positiboa, eta nik hori eragin gura dut.

### Argitaratu duzun lehenbiziko poesia liburua da [aurretik kaleratutako liburua nobelak dira]. Naturala egin zaizu aldaketa?

Bai. Esan bezala, aspalditik idatzi izan dut poesia. Hori bai, horrelako gauza bat egiteko denbora asko behar izaten da, batez ere nire kasuan bezala, amateurra zarenean. Irakurri egin behar duzu, konpondu eta berridatzi. Batzuk orain ho-

gei urtekoak dira, eta batzuei beste teknika bat eman diet. Material gehiago daukat esku artean, baina ez dakit noiz jarriko naizen hori antolatzen.

### Idazle moduan, igarri duzu urteekin nola hazi zaren?

Lehenbiziko liburua 42 urteagaz publikatu zidaten, eta ordutik hazi egin naizela igarri dut. Teknika aldetik hobetu egin dut, eta idaztea

“

**'Hondar Aleak' erraz ulertzen da; testuak landuak dira, baina aldi berean irakurtzeko errazak"**

■

“

**Hogeitun urtean zehar idatzi nituen olerkien artean batzuk aukeratu eta lehiaketara aurkeztu nituen"**

■

bera naturalago irteten zait. Eboluzio bat izan dut. Niri arazo gehiago ematen dit ideiak edukitzeak, teknikak berak baino. *Hondar Aleak* erraz ulertzen dela uste dut, eta hori garrantzitsua da; testuak landuak dira, baina, aldi berean, irakurtzeko errazak.

### Zure bizipenetatik inspiratzen zara.

Sentitzen dudanari buruz idazten dut. Egun makalak ditudanean, adibidez, hori islatzen dut idazterakoan. Aspaldiko maitale bat gogoratzen dudalako idazten dut, edo bizitzeko denbora joaten ari zaigulako, eta ez dagoelako frenorik. Beti diot nik ez nukeela berriro 30 urte eduki gura; badakit zer den hori. Denbora astiroago joatea gura nuke, baina ezinezkoa da. Hareazko erloju batean bezala, hareak ihes egiten digu eskuetatik. Liburuaren azala hortik dator.

### Beste proiekturik esku artean?

Nobela baterako ideia batzuk ditut eta narrazio batzuk ere bai; badut materiala jorratzeko eta horregaz zerbait gorpuzteko, baina pasatuko dira bizpahiru urte zerbait osatu arte.



# Irailaren 21era arte aurkeztu ahalko dira Durangoko Azokaren sormen bekarako proposamenak

**AZOKA • ARITZ MALDONADO**

Euskarazko sorkuntza sustatzeko helburuagaz jarri dute martxan 'Sormen beka da!' beka Gerediaga elkarteak eta Durangoko Udalak elkarlanean. Sortzaile berriei bidea errazteko helburuagaz jaio da egitasmo hau. 15.000 euroko laguntza proiektu bakarrari emango zaio, eta lehiaketa bidez aukeratu da. Kultur sorkutzaren barruan Durangoko Azokak bere baitan hartzen dituen diziplinak hartuko dira

kontuan: literatura, musika, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoak. Deialdi bakoitzean diziplina bat lehenetsiko da; hala ere, proiektuan diziplina ezberdinak uztartu ahalko dira. Aurten aurkezturiko proposamenek literatura eduki behar dute oinarri.

Irailaren 21ean itxiko da proposamenak aurkezteko epea. Gero, 53. Durangoko Azokan emango da lan irabazlearen berri. Ostean, urtebeteko epea edukiko du hautatuak

(edota sortzaile taldeak) proiektua garatzeko. 54. Durangoko Azokan, hau da, 2019koan, erakutsiko dute lehenbiziko bekaren emaitza.

## Adituen epaimahaia

Arantza Atutxa Gerediagako kudeatzaileak aurreratu duenaren arabera, hainbat diziplinatako adituek osatuko dute epaimahaia. Informazio gehigarria [www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus) helbidean aurkitu daiteke.



Arantza Atutxa eta Aitziber Irigoras, aurkezpenean.

# Gremioen gida

anboto

**Zurgintza**

**ATERPE ARBOTZAL**  
EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65  
Ander Maiztegi 655 73 75 51  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

**Zurgintza**

**leike** aroztegia & diseinua  
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

[www.leikearoztegia.com](http://www.leikearoztegia.com)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf.: 94 681 72 29

**Iturgintza**

**UNAI GARAY**  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

**Iturgintza**

**Mallabiena**  
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA - Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

**Iturgintza**

**Ubide**  
iturgintza  
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208  
[ubide@euskalnet.net](mailto:ubide@euskalnet.net)  
48200 DURANGO 188 PK.

**Iturgintza**

**ALDEKOA-OTALORA**  
ITURGINTZA - GASA  
BEROGINTZA - AIREA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

[info@aldekoootalora.com](mailto:info@aldekoootalora.com)  
692 859 779

Zubioure, 8 IURRETA  
946 202 768  
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 ABADIÑO  
944 071 791

**Garbiketa**

**AZKARGI GARBIKETAK**

Auzo elkarte, garaje  
eta obra osteko garbiketak

Goleta, 46 - 2 esk. ELORRIO  
Tel.: 615 791 215

**Dekorazioa**

**JAIObarnizatuak**

Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugvu

Eitua Industriakoa, 45 Garaia A - BERRIZ  
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421  
[info@jaioabarnizatuak.com](mailto:info@jaioabarnizatuak.com)  
[www.jaioabarnizatuak.com](http://www.jaioabarnizatuak.com)



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



# 'Meeting Point', kaleko ikuskizunik onenaren Max saria, Durangon

Uda Giro egitasmoan, dantza garaikideko hiru pieza labur egongo dira ikusgai Ezkurdin



'Meeting Point' dantza ikuskizunak publikoaren zein kritikaren onespina jaso du.

## DANTZA • A.M.

Zapatuan dantza garaikideak Ezkurdiko plaza hartuko du. Mugikorrak izango diren hiru ikuskizun egongo dira ikusgai, tartean, kaleko ikuskizunik onenaren Max saria jaso duen *Meeting Point*. Ertza dantza taldearen obrak 2017ko Leioako Umore Azokako kale ikuskizunik onenaren saria ere irabazi zuen. Jendeak topo egiten duen tokiak dira ikuskizunaren ardatza; elkartzeko gainditu beharreko hausnartzeko gonbita egiten du.

**Kukaik Brodas Bros taldeagaz sorturiko Topa pieza ere egongo da ikusgai Ezkurdin**

**Ikuskizunak 19:00etan hasiko dira; eguraldi txarra eginez gero, San Agustinen izango dira**

## Dantzak Ezkurdi osotik

Ezkurdi beste proposamen bi egongo dira ikusgai. Alde batetik, Doos kolektiboaren *El Fin de las Cosas*. Bestalde, Kukai dantza taldeak Brodas Brosegaz batera prestatu duen *Topa* ikuskizuna.

## Geure Durangaldea

Antton Uriarte Salterain  
Musikaria



## Inertziak (I)

Garen lekukoak garelako edo, beti izan dut alternatibak sortzen dituenarekiko halako miresmen bat. Aurretik eginak diren bide horiei bidezidorrak zabaltzen auzartzen direnekiko, erabat onartua dagoena iraultzera jotzen dutenekiko zein grabitatearen aurka jauzi eginez hegan egitearekin amesten dutenekiko.

Miresmen horrek eraman nau sarri —autoterapiarako publikoki aitor dezadan bide batez— nire bideak ere inertziaren kontra egitetik bazuela sinestera. Ai, ni bai inuzente!

Denborak orain horretara eraman nauelako edo bizi naizen lekuan bizi naizelako akaso, bideak nire kontraesanak azaleratzeraino ekarri nau, gogoz kontra, baina nire mesedetan, hara hor.

Ekarri nau ikustera, edozein bide urratzeak, edozer sortzeak, baduela inertziari aurre egin edo bultzaz eraman gaitzan uztetik.

Kantu bat sortzeak baduelako norbera asebetetzearen eta besteren bati gustagarri izatearen arteko borrokatik. Argazkiak ateratzeak baduelako une hori norberarentzat irudian iltzatu behar izatearen eta sare sozialetan barna erakutsi/konpartitu behararen arteko talkatik. Hitz batzuk idazteak baduelako norberaren gogoetarako tartea hartzearen eta irakurlearen aurrean momentuko maskara izatearen arteko eztabaidatik.

Zer egin, zertarako, zergatik eta norentzako. Hori argi duenak baino ezin duelako bidezidorrik zabaldu, irauli edota hegan egin.

# Gitarra elektrikoaren doinuak beteko da Elorrio, zapatuan, Sinfonityren eskutik

Musikaire jaialdiari esker, Elorrio munduko musika eta antzerkien topaleku bilakatzen da uztailean

## MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailearen hasieratik, Elorrio munduko musika eta antzerkien topaleku bilakatu da. Bihar, esaterako, gitarra elektrikoaren doinuak beteko da Elorrio, Sinfonityren eskutik. Madrildarren kontzertua 22:30ean hasiko da eta hamar musikariek gitarra elektrikoekin musika klasikoa nola jotzen duten ikusi eta

entzun ahal izango dute plazara bertaratzen direnek.

Barikuan, berriz, Camut Band talde katalaneko kideek klakea eta perkusio afrikarra uztartuko dituzte. Hauen ikuskizuna ere 22:30ean izango da, plazan. Asteburuko azken emanaldia Lasala dantza taldeak eskainiko du eta domekan izango da, 19:30ean, plazan.



Sinfonityren kontzertua bihar izango da, 22:30ean.

San Agustín Kultur Gunea  
Plateruena Kafe Antzokia

*uda giro*  
2018

Durango

JAZZERUENA • ZINEA • ANTZERKIA • DANTZA  
MUSIKA • CINE • TEATRO • DANZA

Ezkurdi<sup>3</sup>

Ekainak 14 • 19:00etan  
ERTZA DANTZA  
Meeting point  
DOOS COLECTIVO  
El fin de las cosas  
KUKAI & BRODAS  
Topa

Dantza

Plateruena<sup>2</sup>

JAZZERUENA

Uztailak 18 • 21:00etan  
THE CHERRY  
BOPPERS

Musika

Aurora Abasolo Parkea<sup>1</sup>

Uztailak 21 • 20:00etan  
TRAPU ZAHARRA  
Sefini

Antzerkia

San Agustín  
KULTUR  
GUNEAK  
DURANGO UDALAK

PLATERUENA

SAN AGUSTIN  
Kultur Gunea  
Sanagustinalde, 12  
DURANGO  
Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

PLATERUENA  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatetxea@plateruena.net





# Atera etekina Anbotoren Lagun txartelari!

## Gozatu abantaila eta deskontu hauetaz:

### A-METZ DEKORAZIOA

-%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.  
-%20 ideien proiektuan.

### 3D PRINT

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.  
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

### EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

### EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.  
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

### HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

### HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

### ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

-%5 lehenengo erosketan.  
-%10 erosten den bigarren arropan.

### IURRETA KOPISTEGIA

-%10 eskola eta bulego materialean.  
-%5 musika, opari eta liburuetan.

### KATXARRO JATETXEA

-%10 asteburuetakoko menuetan.

### KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

### MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-%5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.  
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

### NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.  
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

### OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.  
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

### UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.  
-%10 bizikletako osagarrietan.

### URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.  
-%10 papergintzan.

### UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



**ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA**  
%5 lehenengo erosketan.  
%10 erosten den bigarren arropan



**LANDAKO OPTIKA**  
%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.



**MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**  
%5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.  
%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.



# Anbotorenlagunak

Lekuan lekuko lagu-

[www.anboto.org](http://www.anboto.org) · [lagunak@anboto.org](mailto:lagunak@anboto.org) · 946 816 558



Anboto  
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak





**Primi Arroyo Gonzalez**  
Traña-Matienako eskolako  
Gurasoen Elkarte.  
**Elorrio, Abadiñon bizi da**  
| 1977

## “Aurrerantzean herriko ume denek izango dute tokia Abadiño futbol klubean”

Guraso Elkarteak, udalak eta futbol klubak adostutako hitzarmenak irtenbidea eman dio urteetan egon den arazoari

**FUTBOLA** • JOSEBA DERTEANO

**Abadiñoko Udalak Astola futbol zelaiko belar naturala kendu eta zoru artifiziala jarriko du. Aldagela gehiago ere egingo ditu. Udalak, Abadiño futbol klubak eta Gurasoen Elkarteak adostutako hitzarmenaren ondorioa da. Aldaketa horiekin herriko ume denek izango dute tokia futbol klubean, eta urteetan egon den polemikari behin betiko irtenbidea ematea espero dute. Negoziazioetan Primi Arroyo izan da Gurasoen Elkarteko ordezkaria.**

**Zein zen egoera akordioaren aurretik eta zertan aldatuko da obrak egiten dituztenean?**

Traña-Matienako eskolako futbol zarpiko taldeagaz piztu zen kontua, denboraldi hasieran. Traña-Matienako erabilera anitzeko kanta gogorrean barik, gaztetxoek beste zoru mota batean entrenatu beharko luketela esan zidaten gurasoek eta Abadiñon ez zegoen tokirik. Beraz, lanean hasi nintzen eta Berriz futbol klubeko koordinatzaileagaz hartu-emanetan jarri nintzen. Oso ondo hartu gintuen, ez zigun bat ere trabarik jarri. Materiala utzi eta ordutegiekin lagundu ziguten. Hara joateko autobusa Guraso Elkarteak ordaindu zuen. Oro har, ume denek Abadiñon ibili

gura dute, kluba eta Astolako azpiegiturak Athletic balira moduan ikusten dituzte eta. Baina ezin zen. Berrizen eman zuten urtea eta, egia esanda, oso pozik joaten ziren. Hala ere, arazoak hor jarraitzen zuen eta gurasoek kexa bat zuten: zergatik ezin zuten herriko ume denek Abadiño futbol klubean jokatu? Beraz, klubera zein udalera jo genuen.

**Beraz, Gurasoen Elkartetik abiatutako prozesua izan zen?**

Bai. Izan ere, urtero berpizten zen gaia zen. Aurten egoera bideratzeko aukera izan dugu eta aurrerantzean herriko ume denek izango dute tokia Abadiño futbol klubean. Hurrengo denboraldian Traña-Matienako eskolako hiru talde eta Zelaietako bat batuko dira klubera. **Zelaietako eskolako ordezkaria ere izan zara negoziazioetan?** Bai. Bietarako ibili naiz. Zelaietako Guraso Elkartearen bitartez hango gurasoekin batu nintzen eta egoera azaldu nien. Hasieran, "zergatik orain bai eta lehen ez?" eta antzerakoak entzun nituen, baina, azkenean, umeak dira garrantzitsuena; umeek Abadiñon jokatu gura dute eta horren alde lan egin dugu.

**Zein zen ume denek Astolan ez jokatzeko oztopo nagusia?**

Astolako azpiegiturretan ez zegoela toki nahikorik denak hartzeko.

Horixe zen oztopo nagusia. Belar naturaleko zelaia polita da, baina gaur egun ez da errentagarria. Partidu bat jokatu eta astebeteko zainketa behar du, berriro jokatzeke moduan geratu dadin. Eta Astolako zelai artifizialak ezin zituen ume denak hartu.

**Beraz, zoru artifiziala jarrita ume gehiagorentzako tokia egongo da.**

Bai. Belar artifizialeko zelaia lau zaitan banatu daiteke eta bakoitzean gaztetxoek talde bat entrenatu ahalko da. Traña-Matienan gaztetxoak bertako erabilera anitzeko kantxan ibiltzen dira 10 urte egin arte, azpiegitura hark ere erabilera

“**Prozesu nekagarria izan da; batzarrak amaitzen zirenean oraindik buruari bueltak ematen jarraitzen nuen**”

“**Umeek Abadiñon ibili gura dute. Kluba eta Astola Athletic izango balira moduan ikusten dituzte**”

izan dezan. Ondoren, 10 urte dituztenean, ikastetxean izena emanda dauden gaztetxoek zerrenda Abadiño klubari eman eta taldera pasatuko dira zuzenean.

**Zelakoa izan da Guraso Elkartearen, udalaren eta Abadiño klubaren arteko hitzarmenaren negoziazioa? Eztabaida asko egon da?**

Alde denentzat onuragarria dela uste dut. Lehenik eta behin, herriarentzat. Bigarrenik, gurasoentzat eta umeentzat. Abadiñoko zuzendaritzaren partetik ez didate traba bakar bat jarri. Batzar luzeak izan ditugu eta, batzuetan, iritzi desberdinak egon dira. Horrelakoetan, eztabaida gehiago edo gutxiagaz, adosguneak bilatu behar dira.

**Zein da eztabaidarik handiena eragin duen puntua?**

Futbol zelaia. Zuzendaritzakoek behin baino gehiagotan esan izan dute zelaiko zorua aldatuta ez zutela inongo arazorik gaztetxo denak hartzeko eta kirol arlo osoaren kargu egiteko.

**Udalagaz zelan konpodu zara?**

Ondo. Udalak futbol zelaiko lanak egingo ez balitu, bestean ahalegin denak alferrik izango lirarteke eta berdin jarraituko genuke.

**Gurasoen ikuspuntua jasotzea ere egokituko zitzaizun. Zelakoa izan da hartu-emana eurekin?**

Orokorrean, ona. Kanpotik gazteak ekartzen zituztela eta herrikoak kanpoan geratzen zirela, horixe zen euren kezka. Hortik aurrera, egia esanda, babes handia izan dut gurasoen partetik. Batez ere, aurten Berrizen entrenatzen aritu diren gaztetxoek gurasoak nigaz bat egon dira, erabat. Are gehiago; Berrizera joateko autobusa aurkitu arte kotxeetan joan beharko zutela esan nien, eta ez zuten arazorik izan. Eurak antolatu ziren joan-eterrietarako.

**Herritik kanpoko gazteak hartzea eta herriko batzuek tokirik ez izatea zer iruditzen zaizu?**

Gaur egun klub guztiek egiten dutela uste dut. Zergatik? Ez dakit. Ulertu ere ulertu nezake, nahiz eta nik neuk ez dudan ikuspuntu hori partekatzen.

**Arlo pertsonalean gogorra egin zaizu egoera hau guztia kudeatzea?**

Prozesu nekagarria izan da. Batzarrak amaitzen zirenean buruari bueltak ematen jarraitzen nuen. Baina aberasgarria ere egin zait. Futbola gustatzen zait eta, azkenean, erraza izan da. Erraza izan baino, erraz jarri dizkidate gauzak.

**Lanak noiz amaituko diren informatu dizute?**

Azaro inguruan amaituko direla esan digute. Azkenean, baimenek eta gainerako izapideek bere denbora eskatzen dute.

**Futbol denboraldiak lehenago hasten dira. Lanak amaitu bitartean, zer irtenbide bilatu diozue egoerari?**

Buruan darabildan ideia honako hau da: Traña-Matienatik zein Zelaietatik futbol klubera batuko diren taldeak inguruan ditugun gertuko herrietan birkokatzea, behin behinean. Zaldibarren, Berrizen, Elorrioren eta Durangon galdetzen nabil. Asmo horrek aurrera egiten ez badu, beste alternatiba bat ikastetxean bertan entrenatzea da. Zementuzko zorua dago, baina, tira, gure aldetik ere jarri behar dugu zerbait.

**Guraso Elkarteko kide izateaz gainera, Abadiñoko futbol klubeko bazkide ere bazara. Baten batek pentsatu dezake ez zinela pertsonarik aproposena negoziatioetarako.**

Umeak klubetan dituzten guraso guztiak dira bazkideak. Horrelako kontu bat ezin duzu interesagatik egin. Nire semea klubean dabil eta jarrera pasiboagoa hautatu nezakeen: gure elkartera batu, egin behar batzuetara mugatu eta marra hori ez zeharkatu. Baina uste dut nire semeak duen eskubide bera dutela Abadiñoko ume guztiek.



# "Nahiz eta Munduko Txapelketako finalera ez naizen sailkatu, oso pozik nago egin dudan lanagaz"

Martitzenean, Durangaldea Runningeko June Arbeo Sarriguartek bere lehenengo Munduko Txapelketan parte hartu zuen. Korrikalari iurretarrak 33. postuan amaitu zuen lasterketa, bere marka pertsonaletik segundo bakar batera geldituz

**ATLETISMOA • MAIALEN ZUAZUBISKAR**  
Martitzenean amets bat betetzeko aukera izan zuen June Arbeo Sarriguartek. Urte guztian zehar egindako denboraldi bikainari esker, Durangaldea Runningeko korrikalariak Tamperen (Finlandia) jokaturako Munduko Txapelketan parte hartzeko aukera izan zuen. "Denboraldi honetan egin dudana guztiaren saria izan da Munduko Txapelketan parte hartzea", aitortu zion Arbeok ANBOTOri proba amaitu eta lasterrera. Gainera, munduko korrikalaririk onenekin aritzea "hunkigarria" eta "oso berezia" izan zela adierazi zuen.

Arbeok 3.000 metroko oztopodun proban parte hartu zuen eta 33. postuan amaitzea lortu zuen. "Nahiz eta Munduko Txapelketako finalera sailkatu ez, oso pozik nago egin dudana lanagaz. Lasterketan oso ondo sentitu naiz", jarraitu du Arbeok.

Iurretako korrikalariak 10.38.52ko denbora egin zuen bere lehenengo Munduko Txapelketan,

bere marka pertsonaletik segundo batera geldituz. "Hasieratik oso bizkor irten gara eta, azkenean, nire marka pertsonala baino segundo bat gehiago egin dut. Horrek amorrurru apur bat eman dit", jarraitu du.

Hemeretzi urte baino ez ditu Iurretako korrikalariak eta atletismoan etorkizuna duela erakutsi du. Denboraldi bikaina eginda eta bere lehen Munduko Txapelketan parte hartuta, horrelako txapelke-

ta gehiagotan egotea du erronka etorkizunean. "Harro egoteko moduko lana egin dudala uste dut, eta etorkizunean horrelako txapelketa gehiagotan parte hartzeko borrokatuko naiz", amaitu du Arbeok.



June Arbeo Munduko Txapelketan. Somosatletismo.

## Hiru padel pista berri inauguratu dituzte Durangon, zaletasun handiari erantzuteko

Joan zen zapatutik erabilgarri daude Arripausuetan. Tenisko pista bi birmoldatu egin dituzte eta hirugarren bat kendu egin dute, espazio horretan padel pista berriak egiteko

**PADELA • J.D.**

Joan zen zapatuan inauguratu zituzten Arripausuetan dauden padel pista berriak. Obretan, tenisko pista bi birmoldatu dituzte, eta hirugarren bat kendu dute, bertan hiru padel pista egiteko. "Padel pistetako bati ezin izan diogu aterpea ipini, katenaria batek oztopatu egiten duelako", argitu du Pilar Riosek, Durango Kirolakeko arduradunak. Padelarako zaletasuna handitzen joan da urterik urtera



Udal arduradunak eta padel pistako erabiltzaileak, pista berrien inaugurazioan.

eta 2017an, ikastaroen eta alokairuen artean, %80 inguru beteta egoten zen, udal arduradunen arabera. "Gero eta gehiago dira padel zaleak eta ekipamendu hauek zale horiei kirol jarduerak egiten laguntzea eta instalazio duinak eskaintzea espero dut", azaldu du Riosek.

Padel pista berriek monofilamentuzko belar artifiziala daukate, eta tenis pista bitan ere lur berria ipini dute, kirol-erretxinazko lurzorua, Nazioarteko Tenis Federazioak ITF3 kategorian sailkatua. Horrez gain, hiru padel pistak guztiz irisgarriak dira, bertan kirol egokitua sustatu ahal izateko.

Beste ezaugarri bat instalatu diren led argiak dira. Gainera, estalkia guztiz itsua da, eguzkiaren isla ekiditeko.

### Adituaren txokoa

Juan Carlos Perez Villumbrales  
Areto-futbola



#### Agur

Areto-futbolari 22 urte eskaini ostean, etapa bat amaitzeko ordua heldu zait, ez gogo faltagatik, baizik eta kirol eder baten alde borrokatzen jarraitzeko indar faltagatik, zeinari Euskadin ez zaion laguntza nahikorik eskaintzen garrantzitsua izateko.

Bizkaiko federazioarentzat berarentzat ere ezdeusak gara eta laguntzarik ez emateaz gainera, trabak jartzen dizkigu. Azken urteetan, gero eta eskakizun gehiago eskatzen eta futbol 11ri besteko betebeharrak exijitzen dizkigute, baina ez eskubide berdinak ematen.

Areto-futbol taldeok ez ditugu aukera berdinak, ez ekonomikoki eta ez baliabideei dagokienez, ezta urrik eman ere. Futbolak zelaia ditu, publikitate, eta tabernak ustiatzeko. Areto-futboleant, aldiz, ez dugu aukera hori, kiroldegiak beste ekintza batzuekin partekatu behar ditugulako.

Berriki, federazioak iragarri du baduela dirua klubei laguntzeko, baina materialetan ematea erabaki du. Futbol 11ko talde bakoitzari peto multzo bat eta 12 baloi emango dizkiote, eta areto-futbol talde bakoitzari, bost baloi.

Kontakizun batekin amaituko dut. Mallabiko gazteak Bizkaiko txapelkun geratu ziren jardunaldi baten faltan. Azken partiduan, Bilbon, denok espero genuen txapelkunaren garaikurra emango zigutela, baina ez zen inor azaldu. Astelehenean presidentek deitu zidan. Zoriontzeko? Ez. Zierbenaren mesedetan txapelketari uko egin geniezaion eskatzeko. "Mallabia ez zenez igoko", Zierbenak hartu zezan gure tokia nazional mailan. Kopa lau aste geroago eman ziguten. Tira, hori da dagoena. Animo eta zorionak kirol honen alde lan egiten duzuenoi: handiak zarete!

**DIBA**  
K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

A. Urreta podólogo

R.P.S. 214/06

**Ainara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 beheka - DURANGO  
Tel./Faxa: 946 215 404



# Amorebieta futbol klubak 175.000 euroko zorra duela eta desagertzeko zorian egon dela dio zuzendaritza berriak

Hurrengo denboraldian Bigarren B Mailan jarraituko dute, baina onartu dute etorkizunean zaila izango dela maila hori eta zorra bateratzea

**FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**

Jon Larrea presidente berriak eta bere lan taldeak hil honen hasieran hartu zuten klubaren gidaritza, eta zorrak aurkitu dituzte. Zehazki, klubak 175.000 euroko zorra du eta "desagertzeko zorian" egon da, ohar batean azaldu dutenez.

Hurrengo denboraldiari aurre egitea lortuko dute behinik behin, eta taldeak Bigarren B Mailan jarraituko du. "Kluba maite duten pertsona batzuei eta Asier Goiria kirol zuzendariari esker, ekainaren 30eko epe-mugara heldu ahal izan dira eta lehenengo taldeak Bigarren B Mailan jarraituko du hurrengo urtean", argitu du zuzendaritzak ohar batean.

Berehalako erantzuna eskatzen zuen egoerak, eta horri irtenbidea emanda, azterketa sakon bat egiteko asmoa dutela iragarri dute. Hain zuzen, kontu ikuskaritza bat agindu dute eta emaitzak irailerako izango dituzte. Orduan, ezohiko batzar batera deituko dute informazioa emateko eta erabakiak hartu behar badira, erabakiak hartzeko.



Kontu ikuskaritza bat aginduko dute egoera sakon aztertzeko.

## Mailari eustea, lan zaila

Amorebietak hainbat urte daramatza Bigarren B Mailan borrokan. Aurtengoa ez da izan azken urteetako denboraldirik onena, baina mailari eustea lortu dute. Hurrengo denboraldia oraindino konplikatua izango dela aurreikusten

**Kontu ikuskaritza bat agindu dute eta azterketaren emaitzak irailerako izatea aurreikusten dute**

dute. Datorren denboraldiko aurrekontuak lantzen ari dira, eta muga ekonomikoaren ondorioz, aurrekontu horiek "ez dira gura gurekeena izango, bete ahal duguna izango dira". Beraz, gerrikoa estutu beharko dute nahitaez, eta, besteak beste, fitxaketak ere errealitate hori aintzat

hartuz egin beharko dituzte. Egoera osoa kontuan hartuta, argi utzi dute Bigarren B Mailan jarraitzea zaila izango dela. "Maila honetako zorragaz ez da erraza izango bizi-raupen ekonomikoa eta Bigarren

**"Ez da erraza izango bateratzea biziraupen ekonomikoa eta Bigarren B Mailan egotea"**

B Mailan egotea bateratzea. Orain, inoiz baino gehiago, norabide berean arraun egin behar dugu denok elkarregaz", adierazi dute.

Zuzendaritzako talde berriaren asmoa datozen lau urteetan—legegintzaldiak irauten duen epealdia— Amorebieta futbol klubeko kontuak ahal den neurrian onbidatzea da eta, ildo horretatik, lan egiteko asmoa erakutsi dute. Horretarako, datozen egunetan ordainketen egutegi bat landuko dutela aurreratu dute.

## Asteko kirolaria



**NATALIA MARTINEZ MERINO**

Durango, 2004

**Coruñaiko Laxe herrian salbamendu eta sorospen txapelketa jokatu da eta Natalia Martinez gazteak (Tabira igeriketa taldea) igeriketa-**

## "Lasterketan maila handia zegoen eta postu bakoitzagatik borrokatu behar izan genuen"

Espainiako salbamendu eta sorospen txapelketan zilarrezko domina bat irabazi du

**surf modalitatean eta kadete mailan zilarrezko domina irabazi du.**

**Zertan datza igeriketa-surf modalitatean?**

Itsasertzetik korrika irten eta igerian buien arteko ibilbide bat egitea da. Bidean olatuak 'hartu' daitezke, horregatik surf izenarena.

**Zelakoa izan zen zure lasterketa?**

